

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko martxoaren 26a • IV. urtea • 149. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



VICTORIA RAFAEL / ENPRESABURUA
"Mundukide fundazioak erakutsi digu kooperatiba bat zer den eta nola eratu" /7

Goienka2a
 Ibarreko emakume elkarteak: gero eta gehiago daude



XABIER URZELAI

Realeko jokalariek ibarreko ospitalean

Realeko atezain Alberto eta Kvarme atzelaria gaixo dauden gaztetxoekin izan ziren atzo Debagoieneko Eskualde Ospitalean, Arrasaten; tartean, argazkian ageri den Unai Salaberri gazte mondragoetararekin. Sinadura mordoia egin eta opariak banatu zituzten, gelarik gela. Behingoatik, behintzat, seguru gaztetxo horien lagunek ospitalean egon gura zutelara.

ASTEKO GAIA: MU-REN ESKAINTZA BERRIA

Komunikazio arloko ikasketak HUHEZIn

Mondragon Unibertsitateak hamar titulazio berri antolatu ditu 2004-2005 ikasturteari begira. Denarik dago: gradu-ikasketak; gradu-ondokoak; Master programak...

Errefortzu handiena Eskorriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari egokitu zaio. Hain zuzen, ikasketak berrantolatu egin dituzte eta adar berri bat zabalduko dute:

Humanitateak komunikazioari aplikatuta. HUHEZIn helburua da "komunikazio alorreko profesional balioanitzak" prestatzea, komunikabide, enpresa edo erakundeetan lan egiteko. /2-3

PPko zinegotziak Arrasaten

Gipuzkoako udalerrietako 30 ordezkari Arrasaten izan ziren atzo, eguna. Tartean, PPren Euskadiko presidente Carlos Iturgaitz eta PPren Gipuzkoako presidente Maria San Gil etorri ziren. Carlos Iturgaitzek emandako prentsaurrekoan adierazi zuen, besteak beste, lan batzarrak zela; izan ere, PPren helburua dela herritarrek dituzten benetako eta eguneroko arazo berri izan eta horiek konpontzea.



Itziar Lamarai, Arrasateko zinegotzia, Carlos Iturgaitzekin.

UBANE MADERA

Preziorik onena bermatzen dugu:
 Merkeago aurkitzen baduzu, diferentzia abonatuko dizugu*
 *Ikus baldintzak dendako informazio-mostradorean

Garibai Etorbidea, 2-6
 www.forumsport.com

SPORTLAND
 FORUM SHOPS
 KIROLA ZEURE ESKURA

LEIZE GAZTE MODA

LEIZE

Hemen dira udaberria eta uda!

Zatoz, estreinatu dugu denboraldia

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA Fraiskozuri 5 BERGARA Olarte 5 ARRASATE

'Asteon' aldizkaria GOIENKARIArekin

Komunikazio adarra zabaldu du HUHEZIK

- MÜren eskaintza berriaren barne daude ikasketok
- Mondragon Unibertsitateak hamar titulazio berri ezarri ditu
- Diplomatura bi, ingeniari bat eta gradu-ondoko eta doktoretzako ikasketak berriak egongo dira



Jose Antonio Mendikute HUHEZIKo dekanoa, Juanjo Otaño Giza Zientzia saileko zuzendaria eta Jon Sarasua sail bereko koordinatzailea, prentsaurrekoan.

LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA

Mondragon Unibertsitatea hamar titulazio berri ematen hasiko da datorren ikasturtean. Horien artean, lau titulazio berri ezarriko ditu, Arrasateko Eskola Politeknikoan eta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: Telekomunikazioetan Ingeniaritza, Arrasaten; eta hiru titulazio Eskoriatzan.

Azken hauen artean, deigarriena da Eskoriatzako fakultatean ezarriko den ikasketak adar berria: Komunikazio eremua, hain zuzen ere. Horren barne, Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientzien eta Ikus-entzuzko Komunikazioa ikasketak egongo dira. Biok bi urteko lehen ziklo komuna izango dute, eta, lau urteko ikasketak badira ere, bost urtean biak egiteko aukera izango dute ikasleek. Ikus-entzuzko komunikazio ikasketak, bestalde, espezializazioa direnez, 2006-2007 ikasturtera arte ez dira indarrean egongo. Berez, ez da karrera berria, baizik eta Humanitate lizentzia komunikazioaren arlora aplikatuta, orain arte HUHEZIK Enpresa arlora aplikatu izan duen bezala.

HUHEZIKo fakultatean beste bi diplomatura berri eskainiko dituzte, hezkuntza ikasketak adar berriaren barne: Lehen Hezkuntza eta Entzumena eta Mintzaira. Azken hau berezia da, izan ere, Euskal Herri osoan diplomatura hori eskainiko duen lehen fakultatea izango da HUHEZIK.

Eskoriatzako fakultatea bereziki indartuko da eskaintza berriarekin. Hirugarren zikloan, doktorego-programa berri bat ere egongo da: Humanitateak eta Hezkuntza Etorkizuneko Erakundeetan.

Graduatu ondoko eskaintzari dagokionez, sei titulu berri ezarriko dira Masterretan eta Unibertsitate Aditu ikastaroetan. Honakoak izango dira, alegia: Management arloan, Garraioa eta Hornikuntza Katearen Kudeaketa masterra eta Kirol Erakundeetako eta Ekin-tzetako Kudeaketa Masterra eta Unibertsitatea Aditu ikastaroa; Industria kudeaketa arloan, Eragiketa Zuzendaritza eta Logistika Integrala masterra; Hezkuntza arloan, hiru hauek: Informazio eta Komunikaziorako Teknologietan formazioa masterra eta Unibertsitate Aditu ikastaroa; Kulturen arteko

hartu-emanak Euskal Herrian masterra eta Unibertsitate Aditu ikastaroa; eta Didaktika Espezializazioko Titulu Profesionala.

Debagoieneko unibertsitateak lan-merkatuaren beharrei begiratu die bere eskaintza aberasteko. Hainbat kasutan, eskaintza berriak lehen zegoenaren garapen naturala izan da: adibidez, orain dela 4 urte Telekomunikazio Ingeniaritzako lehen zikloa jarri zen indarrean, eta hori osatzeko ezarriko dute orain bigarren zikloa.

ASKOTARIKO PROFESIONALA

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskainiko ditu berritasun gehienak. Izan ere, ikasketak guzti-antolamendu berria egin dute han. Horren gaineko prentsaurrekoa eskaini zuten martitzenean Jose Antonio Mendikute dekanoa, Juanjo Otaño Giza Zientzia saileko zuzendariak eta Jon Sarasua sail horretako koordinatzaileak.

HUHEZIK informazioaren eta komunikazioaren gizarteak dakartzan erronka berriei eran-

tzuteko asmoz ezarri dute adar berria. Prentsaurrekoan, arduradunek nabarmendu zuten komunikazio eremuko ikasketek "profesional balioanitzta" trebatuko dutela, eta komunikazioaren munduak lan aukera handiak eskaintzen dituela: "Sei lanbide posible aurreikusten ditugu: prentsa idatzian; ikus-entzuzko hedabideetan; ekoizpen etxeetan; giza erakundeetan; enpreetan; eta Internet eta telematika sailean, batik bat", esan zuen Jon Sarasua.

ZUREKO BIZILEKU BIOKLIMATIKOAK

Zbb

C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES

PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK

Osasun zerbitzuen eskaintza zabala barne duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.

Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan DESKONTUAK

Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19

JON SARASUA / GIZA ZIENTZIEN DEPARTAMENTUA

“Komunikazioa esparru zabala da, eta gorantz doan sektorea”

Jon Sarasua irakaslea da HUHEZIKo Fakultateko Giza Zientzien saileko arduraduna. Martitzeneko prentsaurrekoan eman zituen ikasketa berrien inguruko azalpenak.

Zein hausnarketak eraman du HUHEZI komunikazio arloko ikasketa hauek sortzera?

Gaur egungo lanbidetara aplikatu ahal izango litezkeen ikasketak berriak sortu nahi genituen. Orain arteko eskaintzak giza zientziak enpresa mundura aplikatzen zituzten, eta hori indartzea erabaki dugu, batetik; eta bestetik, komunikazio alorra irekitzea. Alor hori emergentea da: hedabideetan, enpresan, Interneten... Iruditzen zitzaigun HUHEZIK badituela baliabideak eskaintza berri hori egiteko: hizkuntza eta komunikazio alorrak lantzen ditu, eta baita giza zientziak ere; eta komunikazio alde-tik, Debagoiena ingurune aberatsa da. Uste dugu ikasleei formazio humanistiko eta linguistiko ona ziurtatu diezaiekegula.

Azpimarratzen duzue kazetariak baino, komunikazio arloko profesionalak sortu nahi dituzuela.

Ez dugu kazetaritza ukatzen, baina hedabideek eta enpresek bilatzen dute, orokorrean, komunikatzen trebea den jendea. Guretako, komunikatzailea da hedabideetan nahiz enpresa munduan edo telematikari ahoz zein idatziz berme batzuekin komunikatzen dakien profesional balioanitzia.

Komunikazio munduak badu profesional berri horiek hartzeko gaitasuna?

Gaur egun, komunikazio arloa ez da irtenbide oparo bat; ez daude lanpostu ugari prentsan, tele-



“Komunikazioan lan egiten duten enpresek, guztien artean, eskaintza zabala dute”

bistan... Baina abantaila da esparru zabala dela; komunikazioarekin lan egiten duten enpresa eta erakunde guztien artean, aukera handiak daude. Gure ilusioa da euskal prentsak, eta baita lekuan lekukoak ere, gora egingo dutela; telebistak eta telematika arloek eskaintza indartsua eta etorkizun handikoa dute... Sektore osoa gorantz doa.

Zeintzuk dira ikasketa berrien alde indartsuenak?

Hainbat berezitasun ditu. Esaterako, Komunikazio adarreko bi ikasketak -Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientziak tea Ikus-entzunezko komunikazioa- bost urtean egiteko aukera dago; lehena aukera orokorra da; bigarrena, espezializatua. Bestetik, kolaboratzaile sare sendoa dugu: Euskal Herriko enpresa eta komunikabideekin lankidetzatza dugu. Praktikei eta ikasketa amaierako proiektuari garrantzi handia ematen diegu. Eta euskaratik abiatutako ikasketak dira; gaztelania eta ingelesa ere lantzen dira, baina ikasketok egiteko ezinbestekoa da euskara menperatzea.

Kezka sortu da, Humanitateak-Enpresa ikasketak ez ote diren ahulduko. Zer diozu?

Adar batek ez dio besteari indarririk kentzen, alderantziz. Guk sinistu egiten dugu Enpresa ikasketetan, eta berrindartu egingo da. Potentzialtasun handiko ikasketak dira, eta enpresa zein giza erakundearen arloan zeresan handia duena. Edozelan ere, jendeak alde batera utzi behar du Mondragon Unibertsitatean ikasiz gero, lanpostu ziurra duenaren uste hori. Humanitateak-Enpresa ikasketok egiten dituzten ikasleen artean, askok eta askok lana aurkitzen dute, bai; baina hemen ez beste inon ikaslea ez da bermea.

MUren hezkuntza eskaintza aberastuz doa

Bere gradu-eskaintza indartuko du Mondragon Unibertsitateak baita arlo teknikoan ere. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan Telekomunikazioko Ingeniaritzaren bigarren zikloa ematen hasiko dira datorren ikasturtean, lehenengo zikloko jarraipen bezala. Telekomunikazio sistematik diseinatu, ikertu, simulatu eta kontrolatzen irakatsiko zaie ikasleei. Bestalde, Unibertsitateak Master eta Unibertsitate Aditu ikastaro eskaintza indartuko du sei titulazio berriekin.

2004-2005 ikasturteko eskaintza hauxe da: Goi Eskola Politeknikoan, lehen zikloko sei ikasketa eta bigarren zikloko bost egongo dira; Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, lehen zikloko sei titulazio eta ziklo luzeko hiru -Humanitateak-Enpresa; Komunikazioa; eta Psikopedagogia-Enpresa Zientzia Fakultatean, lehen zikloko hiru titulaziotz jarraituko dute -Kudeaketa Informatikan, Zuzendari Idazkaritza eta Enpresa Zientzietan diplomaturak- eta baita ziklo luzeko enpresa arloko lizentziaturak ere. 28 gradu-ondoko ikasketa egongo dira aukeran, eta bost doktoretza programa.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Eskola Politeknikoak lehen zikloko sei ikasketa eta bigarreneko bost eskainiko ditu.

HUHEZIKen filosofiaren bereizgarri bat da praktikei eta ikasketa bukaerako proiektuari ematen zaion pisua. Horri begira, Eskoriatzako fakultateak Euskal Herriko hainbat enpresa, erakunde eta hedabideekin hitzarmenak egin ditu. Besteak beste, Goiena Komunikazio Kooperatibak parte hartuko du. Baita Debagoieneko zein kanpoko enpresa ezagunek ere: MCCko kooperatibak, Ihardun multimedia enpresa, Danka, AZK... ibarreetan, eta kanpoan, EITB, Berria, tokiko aldizkariak, Eus-

Doktoretza programa berri bat ere egongo da abian datorren urtean Eskoriatzan

kadi Irratia, eta beste asko. Mota honetako ikastaroak eskaintzen dituzte Euskal Herriko beste unibertsitate batzuek, hori bai, leku kopuru oso mugatuarekin.

Arrasaten, Telekomunikazio Ingeniaritza ikasketak estreinatuko dira

BARNE BERRANTOLAKETA
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bi multzo handitan berrantolatu du bere eskaintza: hezkuntza, alde bate-

Master eta Unibertsitate Aditu ikastaroetan, sei titulazio berri ezarriko dira

matuta, eta giza zientziak, bestetik. Hezkuntza adarrak irakasle ikasketen diplomatura eskaintzen segituko du, aipatutako bi diplomatura berriekin -aurretik diplo-

matura bat dutenei zuzenduta daude; eta baita Psikopedagogia lizentziaturak ere -Hizkuntzen psikopedagogia eta Eskuarte Psikopedagogikoa.

Giza Zientzien eremuan, Enpresa saila indarberritu egingo dutela esan zuten HUHEZIKo arduradunek. Humanitateak-Enpresa lizentziatura 1997an sortu zuten, eta haren helburuak dira pertsonak eta pertsona taldeak kudeatzeko eta baita ere enpresen sail teknikoetan lan egiteko gai izango diren profesionalak hezteak.

TOLDOS LECE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomaturak

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



Iñigo Iñurrategik eta Pilar Etxanizek hitz egin zuten Arrasaten egindako prentsaurrekoan.

Europako diseinurik onenaren saria jasoko du GOIENKARIAK

Datorren astelehenean jaso du saria Vienan

GOIENKARIA

Europako diseinurik onenaren saria jasoko du GOIENKARIAK, tokiko prentsaren alorrean, datorren astean, Vienan. European Newspaper Award (Newspaper Design 2003) sariketa prestigioitsuak urtero antolatzen dituen jardunaldietan jasoko du saria GOIENKARIAK. Hain justu ere, Goienako diseinu arduradun Goio Aranek jasoko du saria.

Jardunaldiok martxoaren 29 eta 30ean, astelehen eta martitzenean, izango dira Vienan eta han elkartuko dira Eusopako egunkari ospetsuenetako ordezkariak, tartean, Newspaper Design 2003 lehiaketan saria jaso dutenak: *Heraldo de Aragón*, erregio mailako egunkari onenaren saria; *Il Corriere della Sera* italiarra, nazio mailako onenarena; *Sunday Tribune* irlandarra, astekari onena-



GOIENKARIA

GOIENKARIAren azaletako bat.

rena; eta, Galiziako *La Voz de Galicia* egunkaria, epaimahaiaren aitopren sari berezia, *Prestige* petroliontzia sortutako hondamenaren gainean, infografia erabiliz egindako jarraipenarengatik.

Hauteskundeetako emaitzekin pozik agertu da Debagoieneko Aralar-Zutik

Jarritako helburuak bete dituela esan du eta emaitza onak lortu dituela

OIHANA ELORZA

Espainiako Gorteetarako hauteskundeen balorazio positiboa egin du Debagoieneko Aralar-Zutik koalizioak: erreferente politiko berria ezagutzera eman duelako, boto gehiago lortu dituelako eta babesari eutsi diolako.

Pasa diren hauteskundeetan Debagoienerako zituen helburuak maila onean bete direla uste du Aralar-Zutik koalizioak, eta beraz, oro har, pozik dago Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan Debagoienerako lortutako emaitzekin.

Batetik, koalizioaren izaera, ildo politikoa eta bi alderdiak eta zenbait pertsona erreferente inoiz baino gehiago ezagutaraztea lortu duela dio Aralar-Zutik koalizioak. Bestetik, boto kopurua igo egin duela. Batzar Nagusietarako 3.495 boto lortu zituen Aralarrek Debagoienerako, eta azken hauteskundeetan, 4.083ra igo da

boto kopurua. Honetaz gain, datuak estrapolatuta, Gatzagan izan ezik, beste herrietan udal ordezkariak lortuko zuela gaineratu du koalizioak.

Inkestei buruz, koalizioak onartu du igoera handiagoa aurreikusten zuela, oro har, hiru herrialdeetan, eta esan du argi gelditu dela inkestek joerak markatzeko baino ez dutela balio.

Bestalde, hauteskunde aurreko atentatuak eta gertaera horren erabilera politiko-mediaticoak elektoralki kalte egin diola uste du koalizioak.

Zutik eta Aralar alderdien arteko elkarlanaz ere balorazio

Emaitzekin pozik dagoela esan du Aralar-Zutik-ek, eta jasan dituen gezurrak salatu ditu

positiboa egin du, eta, horren harira, aurrerantzean ere elkarrekin lanean jarraitzeko asmoa dutela adierazi du.

KOALIZIOAREN AURKA EGIN DIRENAK

Emaitzen balorazioarekin batera, hauteskunde kanpainan zehar koalizioaren aurka egin diren hainbat adierazpen publiko ez direla bidezkoak esan du. Adibideen artean jarri zuen herriz herri kargu publikorik hartu ez duten Aralar-kideen izenak agertu izana karteletan, kargua lapurtu dutela gaineratuz. Joseba Permachek eta Arnaldo Otegiak gezurrak esan dituztela esan du, eta gaineratu du hori guztia oso mingarria izan dela koalizioaren kideentzat, deskalifikazioak, gezurrak eta irainak jasan dituztelako. Politikan dena ez dela zilegi ere esan du koalizioak.

Azkenik, Aralar-Zutik koalizioak eskerrak eman dizkie kanpainan lanean ibili diren militanteei eta koalizioan konfiantza jarri duten debagoiendarrei.



Kamioia gurutzatu zen Elgetarako bidean

Bergararik Elgetarako bidean, Izarreko bihurgunean, kamioi handi bat gurutzatu zen eguzten goizean. Horren ondorioz, errepidea itxita egon zen, 6 orduz, bi noranzkoetan, gainera. Autoek eta autobusek Kanpanzarko bidea erabili behar izan zuten. Azkenean, garabi bat eta trailer handi bat behar izan zituzten kamioia mugitzeko. Izarreko bihurgunea konpondu egingo dutela askotan esan dute. Elgetako Udaleko hainbat iturri aurtan bertan konponduko dutela esan dute./O.E.

Olatz Alcelay Dk.

Kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailean espezialista

Lipoeskultura-Liposukzioa
Betazal kirurgia
Sudur kirurgia
Belarriak zuzendu
Sabel kirurgia
Bularrak handitu eta txikitu
Aurpegi liftinga



INSTITUTO VASCONAVARRO
CIRUGIA PLASTICA Y ESTETICA

Santa Maria de la Asuncion klinika
Izaskun errepidea 9 · TOLOSA · Tel.: 943 67 57 77

Virgen del Pilar osasun etxea
Zarategi pasealekua 10 · DONOSTIA · Tel.: 943 29 75 88

3PS 019/03

AUTOENPLEGU IKASTAROA

Helburu Nagusia:

- Pertsona ekintzaileak trebatzea, beren enpresa ideia aztertu ahal izan dezaten.
- Nork bere enpresa sortzeko beharrezko ezagutzak eskaintzea.

Noiz: apirilaren 19tik maiatzaren 5era arte (52 ordu 13 egunetan)

Lekua: Zaldibar ikastetxea- Nafarroa etorbidea 21 - Arrasate

Orduetgia: 09:30etik 13:30era

Antolatzaileak: Debagoieneko Mankomunitatea

Partaidetza: Doan-Plaza mugatuak

IZENEMATEA BEHARREZKOA DA (Epea martxoaren 7ra arte)

- Debagoieneko Mankomunitatea-Garapen Ekonomikoko Agentzia 943 79 30 90 (Jorge Blazquez)
- Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 79 09 00 (Marga Garmendia)
- Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 77 91 24 (Marije Unamuno)
- Oñatiko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 03 77 00 (Jexux Mari Ugarte)

* Eusko Jaurilaritzako enpresa-egitura berriak sortzeko dirulaguntzak eskatzeko balioko du



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Bergarako Migel Altuna institutua Lanbide Heziketaren azokara doa

Fabrikazio mekanikoa eta kimika erakusteko bi stand jarriko ditu

OIHANA ELORZA

Lanbide Heziketako edozein ziklo egin nahi duen ikasleak ikasiko duen guztia erakutsiko du azoka berezi honek. 22 lanbide familia erakutsiko dira guztira, eta ikasleek aukera daukate bertara joan eta hurbiletik ikusi eta ezagutzeko.

Gaur, egubakoitza, ireki dute Bilboko Erakustazoka, Lanbide Heziketaren II. azoka, eta datorren eguenera arte egongo da zabalik. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ikas daitezkeen 22 lanbide familia egongo dira ikusgai. Hau da, edozein ziklo ikasi nahi duen ikasleak ikasi behar duen guztia nolako den ikusteko aukera izango du, bertatik bertara. Ikasleak azokan ikusiko ahal izango du ziklo bakoitzak duen diseinua, erabili behar den materialaren ezaugarriak zeintzuk diren eta produktua bera nolako den.

Aipatutako 22 lanbide heziketa horietatik bi Bergarako Migel Altuna institutuak erakutsiko ditu: fabrikazio mekanikoa eta kimika, hain zuzen ere. Fabrikazio mekanikoaren postuan, esaterako, bi makina jarri dituzte. Bata diseinuaren makina da, eta bestea, berriz, produktua sortzeko behar den tornua, abiadura handikoa.

Kimikako standean plastikoa eta kautxua erakutsiko ditu, hain zuzen ere. Zein material erabilizten diren ikusi ahal izango da, eta produktuak egiteko behar



GARBINE BEITIA

Fabrikazio mekanikoa eta kimika standak jarri ditu Migel Altuna institutuak.

*Lan merkatuan
dauden lanbide
guztiei erantzuten
dieten aukerak
daude azokan*

diren injektoreak nolakoak diren ezagutzeko aukera ere eskainiko du. Eta makina hauek egiten dituzte produktu batzuk ere ikusiko dira, hala nola, *catering*-eko

koilaratxoak eta plastikozko giltzatak.

IKASLEEN IRTEERAK

Lan merkatuan dauden lanbide eskaera guztiei erantzuteko sortu dira 22 lanbide familia hauek, eta horietako zikloren bat egin nahi duten ikasleentzat, gurasoentzat eta irakasleentzat antolatu da, beste behin, azoka. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak autobusak jarriko ditu, EAeko ikastetxeetako ikasleek Lanbide Heziketaren eskaintza gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten.

DEBAGOIENEAN LABUR

Euskadiko turismo bulegoen Itourbask sarean sartu da Oñatiko bulegoa

Oñatiko turismo bulegoa Itourbask sarean sartzeko hitzarmena sinatu dute Oñatiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako turismo sailburuordeak, Koro Garmendiak. Jaurlaritzak Eusko Autonomia Erkidegoan dauden 60 turismo bulegoak sare batean sartu nahi ditu, eta 2005erako, gehienak Itourbask-en egongo direla esan du. Egitasmo honekin, hiru atal landu nahi ditu: dirulaguntzak ematea turismo bulegoei, bulegoen arteko Intranet sortzea, eta Jaurlaritzaren webgunea turismoaren atari bihurtzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Kanpanzar inguruko errepideko zorua konponduko du

Gipuzkoako diputatuaren kontseiluak onartu egin du Kanpanzar inguruan errepidearen zorua konpontzeko proiektua enkantera ateratzea. GI-632 errepidean —Beasain-Durango— egingo dituzte konponketak. Arrasate-Kanpanzar zatian, 870 metro konponduko dituzte. Zati horretan errepidearen zorua hondatuta dagoela adierazi dute, eta zaharberritzea komeni dela. Proiektuaren aurrekontua 177.000 euro da. Honekin batera, B zonako errepideen zorua konpontzeko proiektua ateratzea ere erabaki du Aldundiak.

Oñatiko Arrano taberna barrura sartzen saiatu ziren astelehen gauean

Ateko sarrailan markak daude eta leihoko markoak puskatuta daude hainbat tokitatik. Astearte goizean, taberna irekitzera joan zen bertako langilea, eta hura konturatu zen erasoaz. Hau ez da izan jasan duen eraso bakarra. Duela hilabete batzuetatik hona, hainbat eraso gertatzen ari dira Oñatin, bai pertsonetik bai zenbait ondasunekiko. Ereitten herri plataformak mozio bat aurkeztu zuen otsaileko azken osoko bilkuran, eta onartu egin zuten, EAJ eta EAren botoekin. PSOE eta PP abstenitu egin ziren.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kale bilkura egingo du zapatuan, Bergaran

Bihar, zapatua, 12:00tan, kale bilkura egingo du Euskal Herrian Euskaraz taldeak Bergarako epaitegiaren aurrean. Epaitegiak oraindik euskara baztertu egiten duela aldarrikatzeko eta euskaldunon hizkuntza eskubideak berriro ere ukatu direla esateko egingo du elkarretaratzea. Honekin batera, apirilaren 4an Lesakan egingo den hizkuntza eskubideen egunera joateko ere egin du dei EHEK.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otorola
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



ANTZUOLA

Independentzia Eguna ospatuko dute bihar, gazteek antolatuta

Antzuolako Gazte Asanblada arduratu da aurten Independentzia Eguneko ekitaldiak antolatzeaz.

Abenduaren 12an, 374 urte bete ziren Antzuola Bergaratik banatu zela. Horixe, hain zuzen ere, ospatuko dute bihar, zapa-tua, antzularrek.

13:00etan, triki poteoa egingo dute; 14:00etan, herri bazkaria, frontoian. Bazkalostean, hainbat sorpresa egongo dira. 19:00etan, herri kirolak jokatu dituzte, eta gauerdian, azkenik, Triki taldearen kontzertua izango dugu. /A.I.



UBANE MADERA

ARRASATE

XX. mendeko beharginen gaineko liburua argitaratu dute

Arrasateko industriaren historia errekonstruzeko lanaren barruan, XX. mendeko hainbat sasoitako beharginen gaineko liburua argitaratu dute. *Arrasate, langileen eraikitako herria* izenburuarekin, langileen testigantzetan dago oinarrituta eta haien bizimoduaren bilakaera jasotzen du. Arrasateko Industria Erakusketako arduradun Isabel Aramendiaren eta Leire Parra historialari arrasatearraren emaitza da. Isabel Aramendiak zera adierazi zuen: "1993an, gure industriaren historia errekonstruzeko lanari ekin genionean ohartu ginen historia horretako protagonistak desagertzen ari zirela, eta haiekin batera baita informazio oso baliotsua ere. Hori saihesteko ekin genion beharginen testigantzak hartzeari". Liburua salgai dago, bederatzi eurotan. /U.M.

ARAMAIO

Bizente Goikoetxea musikariaren urteurrena ospatzeko ekimenak

Aurten, Bizente Goikoetxea jaiotako zela 150 urte bete dira. Hori ospatzeko ekimenak antolatzen dabilta Aramaion. Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digunez, zehaztasun guztiak lotuta ez badaude ere, Gasteizen eta Aramaion kontzertu bana antolatzeko asmoa dute, Goikoetxearen lanean oinarrituta. Goikoetxeak Valladolidekin izan zuen lotura dela eta, hango unibertsitateko abesbatza ekarri gura dute; besteak beste, Gasteizko eta Aramaioko abesbatzek ere hartuko dute parte ekitaldi horietan. /U.M.

ELGETA

Zuhaitz Eguna ospatuko dute domeka goizean Egoarbitzan

Domekan, hilaren 28an, Zuhaitz Eguna ospatuko dute elgetarrek. Goizeko bederatzietan plazan elkar-tu eta handik Egoarbitza inguruko zelaietara abiatuko dira landaketa egitera. Hamabi pago eta zortzi haritz landatuko dituzte. Haritzei, iaz herrian jaiotako haurren izenak jarriko dizkiete eta baita argazki bat atera ere. Behin landaketa amaitu ondoren, hamarretakoa izango da. Udaletik jakinarazi dute aitzurra daukaten herri-tarrek bertara eramatea komeni dela. /I.A.

OÑATI

Ertzainen etxea izan zen eraikina erosiko dio Udalak Jaurlaritzari

Ertzainen azpikomisaria zen eraikina erosiko dio Oñatiko Udalak, 420.000 eurotan. Eusko Jaurlaritzari erosiko dio.

Jaurlaritzaren etxea izandakoa saltzeko asmotan zebilela jakin zuen Udalak, eta idatzi bat bidali zion, erakin horretan Udalak lokal batzuk erabiltzen baititu. Idatzi horretan, eraikina erosteko asmoa azaltzen zion Udalak Jaurlaritzari, eta Udala Zerbitzu Teknikoek egindako balorazio baten berri ere eman zion, 420.000 eurokoa, alegia. Jaurlaritzak eskaintza aztertu eta onartu egin du.

ERABILERA, ZEHAZTEKE

Une honetan, Bake Epaitegia dago eraikin horretan. Musika bandak ere toki horretan egiten dituzte entseguak, baina aurrerantzean zer erabilera emango zaion zehazteke dago oraindik. Hala ere, hainbat proiektu eta ideia ditu Udalak, eta banan-banan azter-

tuko ditu. Ideia horien artean daude, adibidez, Udaltzaingoaren egoitza han jartzea, kontuan izanda gero eta udaltzain gehiago daukela. Komun publikoak jartzea ere proposatu du norbaitek, baina esan bezala, oraindik ez dago zehaztuta zer egingo de eraikin horretan. Erabakia hartu ondoren, Udalak aztertu egingo du obrak edo konponketak egin behar diren edo ez.

Ertzainek 17 urtez erabili dute Santa Ana antzokiaren pareko eraikina ertzaizaren azpi komisaria gisa, 1985. urtetik 2002. urtera, hain zuzen ere./O.E.

Zertzelada

Udalak ez daki oraindik zer erabilera emango dion zehazki, baina hainbat ideia aztertuko ditu.

BERGARA

Bost proiektutarako bi milioi euroko laguntza eskatu du Udalak

Bergarako Udalak bi milioi euroko dirulaguntza eskatu dio Jaurlaritzari, 2004-2008 epe bitartean herrian egingo diren bost proiekturen finantzaketan laguntzeko. Aipatutako bost proiektuen aurrekontua 9,5 milioi euroa da. Hain zuzen, horietatik 3,6 milioi Agorroingo kirolgune berri-rako bideratuko dituzte.

AROSTEGIKO ATEA

Arostegi jauregian erakusketa aretoa egokitzeak 333.000 euroko aurrekontua du. Atea berritzeak 28.700 euro balio du. Zera esan digu Xabier Aranburu udal museologoa: "Ez da gehiegizkoa. Arte lana da Arostegikoa, XVI. mendeko ate errenazentista. Horrelako gutxi daude". /E.M.



ARTXIBOA

Arostegi jauregian erakusketa aretoa egokituko dute.

ARETXABALETA

Hiru batzordekide berri aukeratu dituzte Basotxoko erretiratuek

Urteko batzar orokorra egin zuen Basotxo erretiratuen elkarteak joan zen astean. Batetik, zuzendaritza batzordeko kide berriak aukeratu zituzten: Andoni Antxia, Benito Sanchez eta Pedro Mari Zubizarreta. Presidentea, azken urtean bezala, Emiliano Altube izango da, idazkaria Andoni Antxia eta diruzaina Antonio Diez. Bestetik, urtean zehar egin gura dituzten ekintzen berri eman zuten. Datorren eguaztenean, esaterako, gerneru eta sexu arazoaren gainean egingo die berba mediku batek. /M.A.

ESKORIATZA

2004ko udal aurrekontua aurkeztu zuten atzo osoko bilkuran

Ohiko osoko bilkura egin zuen Eskoriatzako Udalak atzo, eguena. Gai zerrenda luzea izan zuten, eta beste batzuen artean honakoak aztertu zituzten: Udalean sortuko diren lanpostuen gainean eskatuko direnak zehaztu zituzten; Mankomunitateak koordinatutako jardueren batzordeetan parte hartzeko udal ordezkariak izendatu zituzten; erretiratuei ortuak jartzeko emango dizkieten lursailak esleitzeko prozedura onartu zuten, eta 2004ko udal aurrekontua aurkeztu zuten egindako zuzenketa eta guzti. /M.A.

GATZAGA

Urteko batzar orokorra egin zuen Toki Eder elkarteak joan zen domekan

Gatzagako Toki Eder elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen domekan. Diru kontuak izan zituzten berba, eta hiru batzordekide aldatu zituzten. Aukeratutako hirurak Alberto Altube, Jasone Elkorobarrutia eta Julio Garcia izan ziren.

Toki Eder elkartearen herriko elkarte bakarra da, eta ia 90 bazkide ditu. Iaz, urtarrilaren 11n, su hartu zuen elkartearen kokatuta dagoen Garro jauregiak. Ia bost hilabetez itxita egon eta gero ekainean zabaldu zuten berriro. /Z.V.M.

Mundukide fundazioak munduko errealitate kooperatibo-komunitarioak ezagutzeko programa antolatu du aurreten ere. Victoria Rafael da truke programan parte hartzen ari denetakoa bat. Mozambikekoa da, enpresaburua.

OIHANA ELORZA

Ongi etorri Euskal Herrira.

Eskerrik asko. Lehen aldia da hona natorrena, eta izugarri gustura nago.

Zerk harritu zaitu?

Lehenik eta behin, elurrak. Otsailaren 29an etorri nintzen, elurtea egin zuen asteburuan, hain zuzen ere. Ez nuen inoiz elurra ikusi, eta hemen, ikusi bakarrik ez, sufritu eta gozatu ahal izan dut. Izan ere, hotz handia pasa nuen, baina aldi berean, oso ondo pasa nuen lagunekin elur pilotekin jolasten. Bestetik, euskaldunok okela asko jaten duzuela ikusi dut. Mozambiketan arroz asko jaten dugu, eta ez hemen beste okela. Hala ere, asko gustatzen zait hemengo janaria.

Horrez gain, uste baino handiagoa da. Gauza denak handiagoak ikusten ditut hemen. Errepideei begira pasatzen dut eguna, izugarriak iruditzen zaizkit. Mundukide fundazioarekin aspalditik daukat harremana, eta askotan entzun ditut Euskal Herriaren inguruko kontuak, baina txikiagoa imajinatzen nuen.

Mozambikeko Marrupa programa ere ezaguna da Debagoienean.

Bai, horrela da. Duela lau urte sortu zen programa hori, Mundukide fundazioaren laguntzarekin. Hemengo enpresa eta lagun askok hartu dute parte programa horretan. Une honetan, esaterako, Eneritz Pagaldai ikasle aretxabaletarra eta Beñat Artzadun, Fagorko ingeneria, Mozambiketan daude, hango proiektuetan guri laguntzen.

Nolakoa da Marrupa programa, zehazki?

Mundukide fundazioak bi adar nagusi ditu: batetik, garapen lurraldeetan sortzen diren lan proiektuak laguntzen ditu, eta bestetik, eskualde garapen integrala hartzen duen programa jartzen du martxan. Marrupa bigarren adar horretan sartzen da. Hau da, proiektu bakar bat baino gehiago, esparru sozio-ekonomiko zabalago hartzen du bere gain. Enpresekin batera, errepideak, eskolak, komunikazioa, osasun zerbitzuak eta bestelako azpiegiturak garatzen ditu. Izan ere, horiek guztiak oso garrantzitsuak dira martxan jarriko den enpresa sostengatzeko.

Zein enpresa sortu dira orain arte?

Eraikuntza enpresa bat, bizikletak muntatzeko eta saltzeko tailerra, arraina merkaturatzeko enpresa, xaboia ekoizteko lantegia, garraio zerbitzurako enpresa berri bat, aroztegi bat eta bigarren hezkuntza mailako heziketa eskola bat, adibidez.

Ecomar enpresa ahaztu zaizu.

Ecomar eraikuntza enpresa ere Marrupa programan sartzen da, bai.

Hiru lagunek izan genuen proiektu hau martxan jartzeko ideia. Hirurok, heziketa eskolako ikasleak ginen, eta Mundukideren laguntzaz, aurrera egitea erabaki genuen. Enpresa honen asmoa kooperatiba bat sortzea zen, herriaren garapena lortzen laguntzeko. Horretarako, Mundukideren laguntza ezinbestekoa izan da. Hark erakutsi digu, adibidez, administrazioa eta kontabilitatea nola antolatu eta eraman behar den. Apirillean, lau urte bete-



OIHANA ELORZA

Victoria Rafael

ENPRESABURUA

“Guztiok errealitate nahiko antzerakoan bizi garela konturatu gara”

EUSKAL HERRIA ETA MOZAMBIKE

“Hemengo errepideak izugarriak dira. Guk eskuz egiten ditugu, eta bizikletan joaten gara herri batetik bestera”

MUNDUKIDE ETA KOOPERATIBAK

“Mundukide fundazioak asko lagundu digu; hark erakutsi digu kooperatiba bat zer den eta nola eratu”

ko ditu Ecomar eraikuntza enpresak. Gehienbat, eskolak, osasun etxeak eta errepideak egiten ditugu. Errepideak, esaterako, eskuz egiten ditugu. Eskuekin garbitzen ditugu bazterrak eta eskuekin eraikitzen ditugu errepideak, ez dugu makinarik. Ditugun makina bakarrik traktoreak dira, eta lurra garraiatzeko erabiltzen ditugu.

Nora heltzen dira errepide horiek?

Oso garrantzitsuak dira, batez ere baserriarrentzako. Hango biztanle gehienak

nekazaritzatik bizi dira eta ez daukate modurik batzen duten uzta beste herri eta tokietara eramateko. Errepide hauek, herri garrantzitsuenetara ez ezik, beste zona batzuetara ere heltzen dira, eta honela, herrien arteko harremana aberatsagoa da, eta merkataritza erraztu egiten da. Artoa eta olioia egiteko ekilorea lantzen dute batik bat.

Gainera, lehen, nekazariak egun bat baino gehiago behar zuten edozein tramite administratibo egiteko. Orain, ordea,

bizikleta hartu, eta egun bakar batean egiten dute hiritik buelta. Era honetan, ez dute janaririk erosi behar, ez eta gaua pasatzeko tokia ordaindu behar.

Norendako dira eskolak?

Ecomar enpresan 280 lagunek egiten dugu lan, eta egiten ditugun eskolak bate-tik langileendako dira. Langileei idazten eta irakurtzen erakusten diegu. Heziketa ikastaroak ere ematen ditugu.

Truke programan, Asia, Afrika eta Amerikatik etorritako 14 lider komunitario-kooperatibok hartzen duzue parte. Egoera bera da guztiona?

Ez da oso desberdina, ez. Askok hitz egin dugu elkarrekin, egoerak aipatu eta bata bestearenarekin konparatu ditugu. Bakoi-tzak arlo ezberdin batean egiten du lan gehiago, baina azken baten, guztion egoerak nahiko antzerakoak direla konturatu gara. Antzerako arazoak ditugu. Oso harreman ona izan dugu, eta aurrerantzean sendotu egingo da.

Zer ikusi eta zer ikasi duzue Debagoienean egin duzuen hilabeteko tarte honetan?

Askok ikasi dugu, benetan. Kooperatiba asko bisitatu ditugu: Fagor, esaterako. Baserriar batzuekin ere izan gara, eta bisitaldi hori bereziki interesatu zitzaidan, Mozambiketan nekazariak nekazariak dira-eta. Hemen enpresa handiak daude, eta Mozambiketan ezin dugu horrelako enpresa erraldoirik eraiki, baina nekazarien antolamendua oso interesgarria iruditu zait. Euskal Herrian 2.000 nekazari baino ez daude, eta Mozambiketan, aldiz, bizilagunen %90 baino gehiago lehen sektoretik bizi dira. Aldea izugarria da.

Baina asko ikasten ari naiz. Batez ere, aurrerantzean han aplikatu daitezkeen ideiak eta proiektuak ikusten saiatzen naiz. Garrantzitsua da proiektua gertutik ezagutu, eta gure errealitatea izango dena irudikatzen hastea.

Apunte asko hartu al dituzu?

Idea eta adibide asko apuntatu ditut. Kooperatibaren inguruko proiektuak interesatzen zaizkit, batez ere, eta horiei arreta berezia eskaini diet. Marrupan kooperatiba bat sortu nahi dugu. Sortzen ari diren enpresa txikiak eta taldeak elkartu eta guztien arteko kooperatiba bat egin nahi dugu. Mozambiketan oso zaila da kooperatiba bat sortzea, baldintzak ere ez dira hain onak. Gerra asko izaten dira, esaterako, eta gobernuak eta bestelako instituzioek ez dute inolako laguntzarik ematen. Gero ere, Mundukidek lagunduko digu kooperatibaren estatutua eta oinarria jartzen, harremanetan jarraituko baitugu.

Orain, hemen ikusitakoa han aplikatzea falta zaigu. Oraindik ez dugu ordenagailurik eta teknologia laguntzarik. Dena eskuz egiten dugu, eta artxiboetan gordetzen ditugu lanak. Dena dela, ordenagailu bat erosteko asmoa badaukagu, guztiok erabiltzeko modukoa, denon lanak gorde eta kudeatuko dituen ordenagailua.

Bestalde, Mundukide fundazioa txosten bat prestatzen ari da, eta gero, txosten hori emango digu truke programan parte hartu dugun guztioi.


Zer eramango duzu zure herrira?

Beste herrialde batzuk ezagutu ditudala esango diet, eta gure errealitatea aurkitzen saiatu behar dugula, poliki-poliki. Gure egoera ere asko aldatu da. Lehen, 46 kilometro egin behar izaten genituen hirigunera joateko. Orain, ordea, bizikletak ditugu, eta guztion arteko harreman eta produktuen merkaturak asko erraztu ditu bizikletak. Errepideak abantaila izugarria dira. Hemendik aurrera, horrelaxe jarraituko dugu, lanean.

Zer moduz daude Eneritz eta Beñat?

Lan eta lan ari dira.

Zabalik

GOIO
ARANA

Viena

Lerro hauek irakurtzen dituzunean GOIENKARIAko ordezkariorik Vienan izango gara. Tokiko prentsaren atalean Europan ondoen diseinatutako egunkariaren saria jasotzera joanak garela Austria-ko hiriburura. Saria jasotzera eta Europako Egunkarien Kongresuan esku hartzera. Arrazoi biak pozgarriak dira guretako: batetik, gure lana aintzakoizat hartu eta saritu egin dutelako Europako Egunkarien Lehiaketa prestigio-suan, eta bestetik, gure astekariaren berri emateko aukera paregabea izango dugulako jardunaldietan.

Ikustera eta erakustera etorriak gara, beraz, Viena. Ikustera —eta beraien eskarmentutik ikustera— beste hitzaldi batzuen artean aurten saritutako batzuek, *Il Corriere della Sera* (Milan), *The Independent* (London) eta *Heraldo de Aragón*-ek egin dituzten lanak aurkeztuko dituztelako, eta erakustera, guk ere gure orriak erakutsiko ditugulako.

Tokiko albisteen irudikatze edo *Visualizacion of local topics* izena jarri diote gure aurkezpenari. GOIENKARIA moduko baliabide gutxiko eta lan-talde txikian egindako argitalpen baten albisteen ikustaratzeko prozesua nola egiten dugun azalduko diegu; eta honekin batera, txikia izan arren, ederra ere izan daitekeela erakustea izango da gure hitzaldiaren helburua.

Izan ere, ez da makala hain urte gutxian esku artean duzun astekari honek erakutsi duena: posible dela izatea debaldekua, bateratzailea, gizartean erreferentziazkoa, hizkuntzaren normalizatorako tresna ezinbestekoa, eta itxuraz zein edukiz kalitatekoa. Ez da gutxi, ala?

Gutunak

Jarrera hipokritarik ez!

Martxoaren 11n Madrilen izandako zorigaitzoko sarraskiaren ostean, ezker abertzalearen aurkako kanpaina hasi zuten politikari denek, elektoralki primeran etortzen zitzaielako. Itxura denez, ezker abertzalearen aurkako edozein jarrera, kriminalizazio zilegizkoa da, gure aurka denak balio du! eta horren ondorioz, hainbat ezbehar gertatu dira, ondorengo lerroetan aipatuko ditugunak, eta bakoitzak egin dezala iruditzen zaion balorazioa.

Gertaeraren berri izan bezain pronto, atentatu honen gaitzespenak etorri ziren, baina burua hotz behar den une horietan eta gertakarien larritasuna ikusirik, politikariak deritzoten horiek eta oraingo honetan EAJ-PNVri zuzentzen gatazka eta bere lehendakariari, ondoren izandako gertakariekin lotuta ardura zuzena dutelako eta azalpenak eman beharrean aurkitzen baitira.

Ibarretxe jauna berehala irten zen erritik euskaldun oso diren gure seme-alabekiko, anai-arrebekiko, gurasoekiko euskal herritartasuna ukatzen eta piztiak, "alimañak" zirela entzun behar izan genion, leporatzen zizkien gertakariekin inolako zerikusirik ez izan arren. Hau al da lehendakari baten papera? lotsagarria benetan! Fede onarekin jokatu zuela adierazi zuen, baina horrela bada, non geratzen da "fede on" hori hanka sartze baten ondoren barkamenik ez bada eskatzen? Sarraski horren egileak zeintzuk izan diren jada garbi asko dago. Hala ere, inork ez digu barkamenik eskatu. Zergatik? Egiaztatuturiko inolako frogarik gabe, herri honek dituen politikariak epaile lanean hasi ziren, ahoz ahozko frogei soilik so eginez, noiztik eman da horrelako zerbait? frogarik gabe kondenatzen!

Itxura denez, gure senitarteko presoen eta gure biziek ez dute baliorik, hor dugu Anjel Berrueta eta Kontxi Sanchizen erailketak, biak poliziaren eskuetatik sorturikoak eta lehendakariak ez dituenak gaitzetsi, zergatik Ibarretxe? gutxiago balio al dute beraien biziek?

Gertaera guzti honen ondorioz espetxeetako egoera okertu da, errepresioa izugarri handitu delako, jipoiak, isolamendua, mehatxuak..., hauek izan dira besteak beste gure senitartekoei jasan behar izan dutena. Aipatzekoa ere, gure herritarra den Txus Goikoetxea gose-greba mugagabearen aurkitzen dela Albaceteko beste kideekin batera, gertakari hauen ondorioz, beraien kide bati labankada batekin erasotzen saiatu zirelako preso sozialak. Besarkada eta muxurik beroena hemendik zuzerat, Txus!

Guk zera esan nahi diogu euskal gizarteari eta herritar batzuen lehendakaria den Ibarretxe jaunari; Etxerategi lanean jarraituko duela gure senide errepresaliatuen aldeko lana sakonduz, beraien izaera politikoa eta eragiletza aitortuko dugula gizartearen aurrean eta gatazkaren konponbiderako ekimen denetan gure ekarpena egingo dugula.

Ez gaitzela gehiago era honetan erabili esan nahi dugu, nahikoa da! Hauteskunde batzuen truke etorri zaiguna onartezina da, ez dezatela muntai politiko, mediatiko gehiagorik egin!

Honekin, igande honetan 12:30ean Iruñeko Donibane auzoko Baguadan Anjel eta Kontxiri egingo zaien omenaldirako deialdia luzatzen dizuegu, bertara joateko animatuz.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Martutene-Valladolid

Beste behin ere euskal presoek jasaten dituzten eraso sistematikoak salatu beharrean gaude; oraingoan, Karmen Irizar Antzuolako preso politikoa jasan duen urrutzea.

Karmen 1998ko martxoan atxilotu zuten (gaur sei urte), eskualdeko hainbat pertsonekin batera. Bost egun Guardia Zibilaren eskuetan inkomunikatuta eta torturatuta pasatu ondoren, Carabanchelen espetxeratu zuten. Bertan zazpi hilabetez egon ondo-

ren, Soto del Realera eramane zuten, hiru hilabetez. 1999ko urtarrilean baldintzapeko askatasunean kaleratu zuten. 2001ean, epaitu ondoren, bost urte eta sei hilabetez kartzela zigorra ezarri zioten eta urte horretako uztailean Martuteneko espetxean sartu zuten. Orduetik, aurreko astelehenara arte (hilak 15), hantxe egon da eta bi urteko kartzela zigorra falta zaion honetan, Valladolidera urrundu dute.

Karmen ez da salbuespena; hor dago Euskal Preso Politikoen Kolektiboa 700 lagun egoera berdinean eta beraien senideak eta lagunak astero milaka kilometro egitera behartuta: seme-alabak, gurasoak... ikusi ahal izateko. Non daude beraien giza eskubideak?

Euskal Herriak behingoz konponbide demokratikoa behar du, Euskal Herriak dagozkion eskubide urratu guztiak eskuratu behar ditu. Horretarako, Euskal Herria aitortu eta errespetatu behar da, herriari hitza eta erabakia emanaz. Beraz, ezinbestekoa da prozesu honetan parte hartzeko Euskal Preso Politikoen Kolektiboa Euskal Herrian egotea. Beraz, legea delako euskal presoak Euskal Herrian egotea, ekin lanari.

ANTZUOLAKO ASKATASUNA
Antzuola

Beroako etxebizitzak

Aretxabaletako Beroa gunean 155 etxebizitza egiten ari dira. Eraikuntza enpresa, ordea, ez da ondo ari, gure ustez. Ez ditu gauzak esan bezala egiten, eta bizilagunok ditugun kexak entzuteko, inoiz ez dago gertu. Bizilagun guztiok ditugun kexen eta arazoengatik idatzi bat egiteko, bilera egin nahi dugu, datorren apirilaren 2an, egubakoitza, 18:00etan Aretxabaletako kultura etxean. Zatozte!

BEROAKO BIZILAGUN BATZUK
Aretxabaleta

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIAZUZENDARIA
Eneko AzkarateERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebizbar,
Josemari Velez de MendizabalADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu AranaSAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia MundiñanoPRODUKZIOA
Iban ArantzabalTESTUEN ZUZENKETA
Sergio AzkarateHARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta LeturiaGoiena
Komunikazio ZerbitzuakLEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ren harpidedun. Egin zaitez zu ere!



**KEPA
ALTUX I**
IRAKASLEA,
OÑATI

"Harpidedun egin gara, batetik hezkuntzan, gizartean bezala, euskara eta komunikazioa garrantzitsuak direlako. Bestetik, gurea bezala, hurbileko zerbitzu publiko bat delako. Ondo ikusten dugu".



**VALEN
MOÑUX I**
APAREJADOREA,
BERGARA

"Gehien gustatzen zaidana asteburuko kultura ekitaldiak sakon bilztzen dituela ikustea da: antzerkia, musika ikuskizunak, eta beste. Gutxi, berriz, hemen ere futbola dela kirol-tako errege".



**AITZIBER
ZUMALDE I**
LANGILEA,
ARRASATE

"Asteburuko berriak egubakoitzerako zaharkituak geratzen dira, eta honela, fresko-freskoak jasotzen ditugu. Gainera, aste barruan gertatuko diren gauzez ere informatzen gaitu. Guztiaren berri dakar".



**ZUHAITZ
ARANTZADI I**
FISIOTERAPEUTA,
ARETXABALETA

"Oso ondo iruditzen zait astelehenetan ere aldizkaria kaleratzea. Jendeak lehenago irakurtzen ditu bertako notiziak, ezagutzen ez dituen tokietakoak baino. Gainera, euskaraz dator, eta hori ona da".



**GORKA
SUDUPE I**
EDERRA TABERNA,
ARRASATE

"Jendeak astelehen goizetan pozik irakurtzen du. Asteburuan ibarreen gertatu diren gertaera guztiak ekartzen ditu, baita kirol emaitzak ere, eta jendeari gustatu egiten zaio hori. Oso ondo dago".



Dragoia, hontza, e.a.

Asteleheneko *Goienkaria*-ren harpidedun egiteak dakarren abantailez berba egin dugu behin baino gehiagotan: alea etxean jasotzeaz gain, hainbat opari edo deskontu egiteaz gain, zozketetan parte hartzeko aukera eskainiko diegula AG-ren harpidedun egiten direnei. Dagoeneko lehenengo oparia jaso dute etxean AG-ren harpidedunek: **Hala bazan... Debagoieneko plazan** ipuin liburua; ibarreko idazle eta ilustratzaile ezagun batzuek eginiko ipuin-liburu eksklusiboa gure harpidedunendako. Apirilaren 7a baino lehen harpidedun egiten direnek izango dute aukera liburu hori eskuratzeko. Aste Santua pasa eta gero, beste promozio batzuk jarriko ditugu abian.

Baina egin dezagun berba liburuaren gainean, lehenengo opari eksklusibo horren gainean. Aurkezpen bikaina dauka liburuak: paper dotorez eta koloretan aurkeztua. Bertako euskarari idatzia, hiru edizio ezberdin egin dira, Debagoieneko hiru azpieuskalkitan: Bergara, Antzuola eta Elgetarako bat; Oñatirako beste bat; eta Leintz alderako (Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) bestea.

Politik benetan ipuinetan kontatzen diren istorioak, belaualdiz belaunaldi, ahoz aho, gaur arte gorde direnak: **Arrasateko dragoiarena**; gauez bizi den **hontza luma barekoarena**; **Joaniko Txistu** Elosuko abade ehiztaria-rena; eta **Oñatiko Torreko zubia-rena**. Umeei kontatzekoak ez ezik, hasi eta bukatu, edozeinek segituan irakurtzeko moduko istorio atseginak. Nahi duzue liburuak eskuratu?

Apirilaren 7a baino lehen 'AG'-ren harpidedun egiten direnei, ipuin liburuak opari



**BLANCA
JAUREGI I**
GAZTE ZERBITZUA,
ARRASATE

"Gazte Bulegorako garrantzi handia dauka *Asteleheneko Goienkaria*-k. Ibarreko gizarte, kultura eta kirol gertaeren informazio zuzena eta egunerokoa ekartzen du. Oso interesgarria da".



**ISMAEL
ZUBIA I**
IRAKASLEA,
OÑATI

"Euskaldunok hutsu-nea geneukan asteleheneko prentsan, eta orain, egun horretan ere euskaraz irakurtzeko aukera dugu. Ibarreko notiziak lehen eskutik eta zuzenean jaso ahal ditugu, gainera".



**LEIRE
ARANBURU I**
PANADEROKUA
TABERNA, ELGETA

"Kirolzalea naiz, baina kirolaz gain, gainontzeko berriak ere ondo jasotzen dituela konturatu naiz. Irakurtzeko oso erraza da, eta notiziak osatuak ekartzen ditu. Euskaraz, gainera. Eta balio handia du horrek".



**AITOR
MURUAMENDIARAZ I**
AVENIDA TABERNA,
BERGARA

"Tabernan askok irakurtzen dute, gazteek batez ere. Kirol asko dakar, astelehenetako gainontzeko egunkariak bezala. Bestelako notiziak ere ekartzen ditu, hala ere. Ondo dago, hemengo aldizkaria da".



**XABIER
ALTZELAI I**
LANGILEA,
ANTZUOLA

"Askok gustatzen zait *Asteleheneko Goienkaria*. Asteburuak eman duena ondo jasotzen du. Ni kirolzalea naiz, eta kiroltako atala gustura irakurtzen dut. Astelehen agenda ere badakar, eta ondo etortzen da".



**JOSE MARI
GABILONDO I**
ERRETIRATUA,
ANTZUOLA

"Oso ondo ikusten dut *Asteleheneko Goienkaria*. Gustatzen zait. Gustura irakurtzen ditut herriko bertako notiziak eta inguruko berriak. Hainbat iritzi, tartean. Animo, eta aurrera".



**AINHOA
DOUHAIBI I**
ARRANO TABERNA,
OÑATI

"Jende askok irakurtzen du tabernan *Asteleheneko Goienkaria*. Bestetik, euskararen aldeko ekimena da eta harpidetza egitea ez da batere garestia. Egitasmo interesgarria da, bertakoa da-eta".



**IÑIGO
IÑURRATEGI I**
ZINEGOTZIA (ARALAR),
BERGARA

"Bertako informazioa bertako hedabideek emana eta euskaraz jasotzea oso garrantzitsua da. *Asteleheneko Goienkaria* euskaraz normaltasun osoz bizitzeko aukeran beste urrats bat da".



**CIRILO
PEREA I**
KIROL TEKNIKARIA,
ESKORIATZA

"Oso ondo dago *Asteleheneko Goienkaria*. Agian, kirol emaitzaren bat edo beste falta da, baina orokorrean, ondo osatuta dagoen aldizkaria da. Asteburuan zer gertatu den berehala enteratzen zara".



**ANABEL
ARANTZADI I**
ETXEKOANDREA,
ARETXABALETA

"Hasieran, laguntza emategatik eman genuen izena, egubakoitzetan banatzen dena asko gustatzen zaigu-eta. Baina orain, gero eta informazio gehiago eta eguneratua eskaintzen duela ikusi dugu".

Podiuma

Kirolabur

Ander Agirre | TXIRRINDULARIA |

OIHANA ELORZA

San Jose egunean egin ohi zen Gorlako igoera, baina egun hori ez da urtero jai eguna izaten, eta hemendik aurrera, martxoko azken domekan egitea erabaki dute antolatzaileek. Ander Agirre txirrindulari bergararrak bosgarren urtez egingo du igoera ezagun hau.

Zer erakutsi dizu aurreko urteotako esperientziak?

Urterot izaten dela gogorra Gorlako igoera. Eta horrekin batera, urtetik urtera, gero eta azkarrago joaten dela tropela, nabarmen azkarrago.

Irabazteko helburuarekin aterako zara?

Oso zaila da irabaztea. Tropela nahiko handia izaten da, eta normalean, profesionalek salto egingo duten hartzten dute parte. Noski, horiek dira onenak, beraz, horiek nik baino aukera gehiago dituzte irabazteko.

Faboritorik bai?

Egia esan, ez. Aurten, gainera, ez dago faborito bakarra. Irabazteko gai diren txirrindulari kopuru zabala dago. Eta hori oso ona da, kirolarentzat batez ere. Gero eta jende berri gehiagok hartzen du parte.

Probaren ibilbidea ez da beti bera izan, ezta?

Ez, azken urteotan aldatu egin dute. Lehen, igoera bakarrik egiten zen. Irteera puntutik atera, eta igo. Orain, ordea, zirkuitu bat antolatzen dute, eta bi aldiz igo behar da Gorlara.

Nik neuk nahiago dut bigarren aukera hau. Orain, lasterketa itxura dauka, eta gero eta jende gehiago dator. Lehen, ordu erdian eman behar zenuen guztia. Orain, berriz, bi ordu dira, eta beste patxada baten egiten da ibilbidea. Edozelan ere, oso gogorra da proba.



OIHANA ELORZA

Oñatiko Lizarralde Kirolak-Aldekoa Logistika taldean ari da Ander.

“Ugarrixatik gora oso gogorra da igoera, eta hortxe erabakiko da lasterketa, azken bizpahiru kilometroetan”

Zergatik da berezia Gorlako igoera?

Kategoria honetan, Balentziaga proba eta Gorlako igoera dira inguruko ezagunenak. Nahiko proba zaharrak ere badira, eta jendeak ondo ezagutzen ditu. Ibilbidean zehar jende asko

egoten da animatzen, Tourrean beste ia.

Ibilbidea ondo ezagutzen duzu; non erabakiko da lasterketa?

Nire ustez azken bizpahiru kilometroak izango dira erabakigarriak, Ugarrixatik gora. Ihe-

saldiren bat egoten ez bada, behintzat, azken unean erabakiko dela uste dut. Lehenengo bueltan apurtzen da tropela, baina bigarrenarako, zatituta heltzen da. Irabazteko asmoa dutenen taldekideak aurrean jarriko dira lehenengo buelta egin eta gero, baina azken unean arte ez da erabakiko lasterketa.

Zenbatek hartuko duzue parte domekan?

Oñatiko Lizarralde-Aldekoa taldekoa naiz ni, eta taldeko seik, behintzat, hartuko dugu parte igoeran. Oñatiarrak dira batzuk. Bergarakoak Debabarrena taldean ari den Kepa Varela eta biok gara.

Bestela, guztira, 150 txirrindulari inguru aterako gara irteera-gunetik.

Elkarrekin entrenatzen zarete taldekook?

Tartean behin bai, baina nork bere bizimodua dauka, eta ez da erraza ordu berak libre izatea entrenatzeko. Normalean, bakarrik entrenatzen gara.

Apirilaren hasieran, Bergaran hasiko da Euskal Herriko Itzulia.

Bai, badut gogoia. Normalean, telebista bidez ikusten ditut lasterketak, baina oraingoan, bertatik bertara ikusteko aukera izango dut. Lehenengo etapa Bergaran hasi eta amaituko da, beraz, bigarrena ere hemendik abiatuko da.

Erabaki duzu nora joango zaren lasterketa ikustera?

Oraindik ez, baina mendate-aren batera joango naiz seguruenik. Kalean ere ikusi nahi ditut, maila goreneko txirrindulariak etorriko dira-eta.

Zein da zure pronostikoa?

Euskaltel-Euskadi taldea indartsu ibiliko dela uste dut. Euskaldunak, oro har, ibiliko dira gogor, Osa anaiak, adibidez. Valverde ere bai ...

MENDIKO BIZIKLETA/ARRASATE

Domekan, 11:00etan, mendiko bizikletako Euskadiko Ope-naren bigarren proba egingo da Arrasaten. Eroskin abiatuko da, eta zortzi kilometroko zirkuitua prestatu dute, Kanpanzar alde-ara. Hainbat kategoriaz izango dira, eta horien arabera, lau, hiru edo bi buelta emango zaizkio zirkuituari. Parte-hartzaileen artean, Debagoieneko Ederra Taberna mendiko bizikleta taldeko kideak egingo dira.

BORROKA/ARAMAIO

Maider Unda borrokalaria ez da Olinpiar Jokoetara joango. Asteburuan, Madrilen txapelketa egin zen Atenasera joateko. Bi borroka irabazi arren, hirugarrena galdu egin zuen Mainerrek, Mongoliaren aurka; azken minutuan galdu zuen. Orain, atsedean hartzen dago etxean, Oletan.

PATINAJEA/ARETXABALETA

Patinaje ikastaroa emango dute Aretxabaletako kirol etxean apiriletik ekaina bitartean. 16 urte baino gehiago dituzten hasi berriendako eta patinatzen jakin baina teknika hobetu nahi dutenendako da ikastaro hau. Izena emateko epea zabalik dago, eta Aretxabaletako Kirol Zerbitzuan egin behar da.

FUTBOLA/ARRASATE

Bihar, zapatuan, preferente B mailako futbol derbia jokatuko da Arrasateko Atxabalpe futbol zelaietan, 16:30ean. Mondra eta Aloña Mendi taldeen arteko derbia izango da. Orain, Aloñak bederatzi puntu ateratzen dizkio Mondrari.

ARETO FUTBOLA/ELGETA

Apirilean hasi eta ekaina abiarartean, areto futbol txapelketa egingo da Elgetan. Martxoaren 31 da izena emateko azken eguna. Bi talde onenek eta gol gehien sartzen dituen jokalariek jasoko dituzte sariak.

Markelen Irizarren Lagunartia aurkeztu dute Oñatin

OIHANA ELORZA


Markel Irizar txirrindulari oñatiarraren lagunartea edo *peña* aurkeztu dute astean Oñatin. Markel bera, Jon Oregi lagunarteko presidentea eta lagun asko egon ziren aurkezpenean. Markelen ibilbidea erakutsi zuen bideo bat ere jarri zuten. Lagunartearen helburua da lasterketetan Markel animatzea, Euskal Herriko zein atzerriko errepideetan. Horretarako, irteerak antolatuko ditu lasterketetara, eta kamisetak aterako ditu.

Markelek Nazioarteko Kriteriumean hartuko du parte, eta horren ondoren, Flandesko Tourrera joango da.



OIHANA ELORZA

Julen Iriando aurkezlea, Markel Irizar eta Jon Oregi lagunartearen presidentea.



OIHANA ELORZA

Lagunarteko kide izateko Aloña Mendira jo, martitzen eta eguen iluntzean.

URREZKO ZERBITZUA



Lehenago jasoko duzu Pentsioa.

Pentsioa **kutxan** helbideratuz gero, **Urrezko Zerbitzua**ren onura berezi ugari izango dituzu eskura, zuretzat propio.

Esate baterako, **Pentsioa kobratzeko eguna hilaren 25era aurreratu ahal izango duzu**, gure kutxazain automatikoetan bertan. Edo, bestela, Urrezko Aurrerapenaren edo Urrezko Maileguaren abantailaz gozatzeko aukera.

Eta, orain, gainera, **Urrezko Txartel** berriaren abantailak ere esku-eskura dituzu: diruz lagundutako bidaiak eta txangoak; deskontuak zinema-aretoetan, ikuskizunetan eta museoetan; hainbat zozketa berezitan parte hartzeko aukera eta **etengabe hazten ari diren beste hainbat abantailaz gozatu.**

**ORAINTXE BERTAN ESKATU, DOAN, ETA GOZA ITZAZU
PENSIOA KUTXAN KOBRATZEAK DAKARZKIZUN ONURAK.**



• • • •
**URREZKO
ZERBITZUA**

Informa zaitetz eta eskatu txartela **zeure ohiko bulegoan, Telekutxan 901 333 555** edo **www.kutxa.net** helbidean.



Añai erretegia

- Eskaintza** **Iardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



Gure Ametsa jatetxea

- Eskaintza** **LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita**



Pildain jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa 14 / ARRASATE**
943 79 11 65 / 943 77 18 40
- Eguneko menua
 - Lagun arteko afariak
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Ogitartekoak eta kazuelatxoak
- Berezitasunak**
- Bildotsa labean erreta
 - Arraina
 - Babarrunak
 - Etxean egindako ogia




Torrekua jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**
943 76 50 99
- Eguneko menua
 - Karta
 - Kintadak
 - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
 - Itsaskia
 - Txuletak



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita**



Zuhaizti jatetxea

- Eskaintza** **Espoloia 6 / BERGARA**
943 76 59 22
- Eguneko menua, aste barruan
 - Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan
- Berezitasunak**
- Etxeko postreak

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko martxoaren 26a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren 26tik
apirilaren 2ra



Emakume elkarteak, geroz eta gehiago

Gaur egun, bost emakume elkarte ditugu Debagoiengan: Arrasateko Ekin, Bergarako BEKE, Eskoriatzako Amuska, Aramaioko Itur-Zuri eta Gatzagako Sorginak. Bost elkarteak dira ezberdinak, baina helburu nagusi bera dute: herriko emakumeak elkartzeko ekintzak sortzea.

Ikastaroak, hitzaldiak eta bestelako ekintzak antolatzen dituzte elkarteek. Betiere emakumeen interesekoak direnak, baina herritar guztiei zuzendutakoak ere badira batzuk. Izan ere, emakumearen alde lana egiteaz gainera, herriarendako ere egin nahi dute lan.

BOST HERRI ETA BOST ELKARTE

Bost emakume elkarte daude Debagoiengan, bost herritan. Inguruko herrietako emakume elkarteak ezagutzen dituzte, baina ez dute talde bezala harreman handirik haiekin. Izan ere, elkarte bakoitzak bere herrian egiten du lan. /15
USOA AGIRRE



Udaberria eta uda garaiz harrapatzeko



- > Bideokamera digitalak
- > Argazki-kamera digitalak
- > Movistar telefonia: eskaintzarik onena
- > Pertsonen gustuen araberako soluzioak

MILAR ELKORO

ARRASATE.
Olarte 1
Tel. 943 79 18 86
Faxa 943 77 09 38



GARBIGUNEA

amaiera onena
zabor bereziarentzat

GARBIGUNEAK hiri hondakinen gaikako bilketako **debaldeko** guneak dira. Garbiguneak erabiliz gero, **birziklapena** erreztuko duzu eta hondakinei amaierarik onena emango diezu.

ORDUTEGIAK

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00etara. **LARUNBATAK** 9:00etatik 13:30etara. **ABUZTUA** •Arrasate: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 13:30etara. •Bergara: astearte eta ostiraletan, 9:00etatik 13:30etara. •Oñati: asteazken eta larunbatetan, 9:00etatik 13:30etara.

JAI eta IGANDETAN Garbiguneak itxita egongo dira.


Arrasate (Ibarreta)



Bergara (S. Kristobal)



Oñati (Urrutxu)



zer biltzen da?

- | | |
|---|--|
| Sukaldeko olioak. | Zurak. |
| Kotxeko olioak (banakako erabilera). | Ibilgailu EZ motordunen neumatikoak. |
| Bateria, metagailuak eta pilak. | Pintura, disolbatzaileak eta garbikariak. |
| Aerosol, pestizidak... | Gauza metalikoak (erradiadoreak, bizikletak, aulkiak). |
| Eskonbruak (adreiluak, lurra, kristalak...). | Paper eta kartoia. |
| Material informatikoa (pantailak, tonerrak, disketerak, CDak, video zintak...). | Plastikoak. |
| Elektrogailuak (mota guztietakoak). | Radiografiak. |
| Ke-detektagailuak. | Sakeleko telefonoak. |
| | Termometroak. |
| | Beira. |

zer EZ utzi

- Ibilgailu motordunen neumatikoak.
- Tailer mekanikoetako olioak.
- Hondakin industrialak.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

ELKARTEAK / IBARREKO EMAKUME TALDEAK

Ibarreko emakumeen topaguneak

BOST EMAKUME ELKARTE DAUDE IBARREAN. BOST IZEN EZBERDIN, BAINA HELBURUA BAKARRA DA: EMAKUMEEN TOPAGUNE IZATEA

USOA AGIRRE

Geroz eta emakume elkarte gehiago daude ibarrean. Joan den ekainean sortu zen azkena; Bergarako BEKE. Baina ibarreko beste herri batzuetako elkarteek dagoeneko urte asko daramatzate askotariko ekintzak antolatzen eta emakumeen arteko harremanak sendotzen.

Eskoriatzako Amuska eta Gatzagako Sorginak dira Debagoieneko emakume elkarte bateranoak. Biek ere hamabost bat urte daramatzate emakumeendako eta emakumeen alde lanean. Aramaioko Itur-Zuri elkarteak ere urte mordoxka darama lanean, hamahiru, hain zuzen ere. Arrasateko Ekin gaztetxoagoa da, duela bederatzita urte sortu zen, baina dagoeneko onarpen handi eta zabala lortu du Arrasateko emakumeen artean. Ibarreko bost emakume elkarten artean gazteena da Bergarako BEKE: joan den urteko ekainean sortu zuten.

Emakumeen talde hauek beste edozein elkarte moduko funtzionamendua dute. Aldian behin batzarrak egiten dituzte eta urtean behin bazkideen batzar orokorra. Elkarte gehienetako bazkideek ordaintzen dute urteko kuotaren bat, eta horrez gain, dirulaguntzak ere jasotzen dituzte: Emakundetik, udaletatik edo beste erakunde batzuetatik.

EKINTZA UGARI GUZTIENDAKO

Denetariko ekintzak antolatzen dituzte ibarreko emakume elkarteek. Emakumeendako antolatzen dituzte ekintza gehienak, baina badira herritar guztiei zuzendutakoak ere; hitzaldiak, adibidez. Arrasaten sukaldaritza eta joskintza ikastaroak antolatu zituzten duela gutxi, eta emakumei baino gehiago, gizonezkoek zuzenduta zeuden bi ikastaro horiek. Sukaldaritzak arrakasta handia izan zuen gizonezkoen artean, baina joskintzak ez zuen gizonezko askorik erakarri.

Adin guztietako emakumeek parte hartzen dute ekintzetan; hasi 20 urtetik eta 70-80 urtera artekoak. Hala ere, herriaren arabera badaude ezberdintasunak: Eskoriatzan, adibidez, berrogei urtetik gorako emakumeak dira ekintzetan parte hartzen duten gehienak; elkarteko bazkideak ere adin horretatik gorakoak dira gehienak. Arrasaten, berriz, 15 urte inguruko neskatxoak ere aritzen dira Ekin emakume elkartearen, eta orain, gaztetxo horiei zuzendutako ekintza gehiago antolatzen asmoa dute.



EKIN / ARRASATE

1995ean sortu zen Ekin. AED barruko elkarte da eta emakumeen garapena euskaraz emateko helburuarekin sortu zen. Ikastaro asko antolatzen dituzte eta adin guztietako 100 bat pertsonak parte hartzen dute ekintzetan. Neska gazteei zuzendutako ikastaroak antolatzen dihardute orain, Aste Santu osterako.



AMUSKA / ESKORIATZA

Duela hamabost bat urte sortu zuten Amuska elkarte langabezia zeuden emakume batzuek. Denetariko ekintzak antolatzen dituzte. Orain, sei ikastaro dituzte abian eta maiatzeko ekintza gehiago antolatzen ari dira. Bazkide asko dira elkartearen: 136, hain zuzen ere. 40 urtetik gorakoak dira gehienak.



SORGINAK / LEINTZ GATZAGA

Hamabost bat urte ditu Gatzagako Sorginak emakume elkarteak. Oraingoan, ez dute ekintzarik abian, baina yoga ikastaroa jartzeko asmoa dute. Hala ere, urtean zehar hainbat ekintza egiten dituzte: Emakumearen Eguneko bazkaria, hitzaldiak, bidaiak... Adin guztietako emakumeek parte hartzen dute ekintzetan.



BEKE / BERGARA

Joan den urteko ekainean sortu zuten Bergarako BEKE elkarte. Emakumea gizartean integratzeko eta haren autoestimua garatzeko bideak jartzea da euren asmoa. Eskulanak izan zituzten abiapuntu, baina elkartearen sortuz geroztik ekintza gehiago antolatzen dituzte. Oraingoan 30 bat bazkide dira elkartearen.



ITUR-ZURI / ARAMAIO

Duela 13 bat urte sortu zuten Aramaioko emakumeen elkarte. Lau ekintza dituzte orain abian: yoga, aerobika, gimnasia eta eskulanak. Horiez gain, urtean zehar beste ekintza batzuk ere egiten dituzte: pintura lehiaketa, txokolate-jana eta bidaiak, besteak beste. Gaur egun, 100 bat emakume daude taldean.

Bidaiatzea, denen gustuko

Guztiori gustatzen zaigu bidaiatzea, lagun taldea elkartu eta leku berriak ezagutzeko. Antzaenez, ibarreko emakumeek ere atsegin dute bidaiatzea; Debagoieneko ia emakume elkarte guztiek antolatzen dute urtean zehar irteeraren bat, eta batzuek bi ere egiten dituzte.

Arrasateko Ekin elkarteak, adibidez, urtean bi irteera antolatzen ditu. Maiatzaren 29rako eta 30erako antolatu dute hurrengoak: Iparraldera joango dira asteburua pasatzera. Eskoriatzako Amuska taldekoek ere irteera ugari egiten dituzte; azkena martxoaren 8an egin zuten, Emakume Langilearen Egunean. Bianara joan ziren eguna pasatzera.

Aramaioko eta Gatzagako emakumeek ere bidaiak zaleak dira. Aramaioko Itur-Zuri elkarteek Londresera joateko asmoa zuten aurten, baina bidaiaren prezioa garestiegia irtetzen zela eta, azkenean bertan behera gelditu zen irteera. 72 pertsonak eman zuten izena Londresera joateko; ea hurrengoan zorte hobea duten.

Bergarako BEKE emakume elkartearen sortu berria da. Oraingoan, ez dute bidaiarik egiteko asmorik.

Mar. 26-Api. 2

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Itsasminex** txotxongilo saioa eskainiko du Enkarni Genuak bihar, zapatua, Olanaren etxean, 16:30ean.

ARRASATE

► **Elevator** antzezlanaren eskainiko du Gilkitxaro taldeak gaur, egubakoitza, Olarte kaleko Jai Zale tabernan, 23:00etan. AEDk eta Topaguneak antolatzen dute, Kultur Errota egitasmoaren barne.
► **Azken bolada honetan adarra jo dizuete?** antzezlanaren eskainiko du Murray aztiak gaur, egubakoitza, Kontzezinokaleko lamai kafetegian, 00:00etan. Sarrera, doan.

BERGARA

► **El cómico de los caminos** antzezlanaren eskainiko du Pablo del Mundillo iruindarrak gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.
► **El feeling es así** antzezlanaren eskainiko du Tearo taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

DEIAK

ARAMAIO

► **Ikaspilota eguna** izango dute San Martin eskolakoek gaur, egubakoitza. Beste eskola batzuetako ikasleekin hainbat pilota proba jokatu dituzte.
► **Arabako II. bertsolari txapelketako** lehenengo final erdia jokatu dute bihar, zapatua, kultura etxean, 19:00etan. Honakoek esku hartuko dute: Zigor Enbeita, Asier Otamendi, Ruben Sanchez, Andere Arriolabengoa,

Orlando Arreitunandia eta Rikardo Gonzalez de Duranak. Lierni Altunak aurkeztuko du.

► **El puente sobre el río Kwai** filmaren emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Euro bat da.

ARRASATE

► **Odol emaileen elkarteak** lantegi eta eskoletan kanpaina egiteari ekin dio. Gaur, egubakoitza, Fagor Garagarzan egongo dira, 09:00-13:30.
► **Irak eta Palestinaren okupazioa** salatuko ekitaldiak egongo dira. Astelehenean, hilak 29, arma industriaren gaineko hitzaldia egongo da; martitzenean, 30, diapositiba emanaldia. Arrasateko Gerraren Aurkako Plataformak antolatu ditu. Bi ekintzak Monterronen izango dira, 19:00etan.
► **Oporrak bakean** egitasmoa abian jarri dute Euskadiko Fronte Polisarioak eta Sahara Herriko Lagunen Elkarteak. 7-12 urte bitarteko ume sahararrak ekarri nahi dituzte udan. Prest dauden familiek izena eman beharko dute martxoaren 30a baino lehen, 943 79 09 00 telefonoan (Maite Aizpiri).
► **Feminismoaren ibilbidea eta erroka berriak** hitzaldia egongo du Arantza Camposek eguaztenean, hilak 31, Emakume Txokoa, 18:00etan, Feminismo Eskolaren barne.

BERGARA

► **Bertso afaria** egongo dute gaur, egubakoitza, Pagomendi elkarteak, 21:00etan. Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberioi parte hartuko dute.
► **Odol-ateratzeak** egongo dituzte hilaren 31n, eguaztena, Seminarioan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

► **Elkarri mugimenduak** Bake Konferentzia bultzatzeko sinadurak

biltuko ditu bihar, zapatua, goizean, Arrasaten eta Bergaran.

► **Foru Aldundiak antolatutako udalekuetan** izena emateko epea zabalik dago apirilaren 2ra arte, egubakoitza. 7-13 urte bitartekoek izena eman ahal izango dute; azkenean, zotz egongo dira lekuak. Horretarako, jo www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidera, edo Gazte Informazio guneotara.

ELGETA

► **Zuhaitz Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. Eguarbitzako lursailetan elkartuko dira haritzak eta pagoak landatzeko. Iaz jaiotako guraseoi dei berezia egiten diete.

ESKORIATZA

► **Helduei zuzendutako ipuin kontaketa saioa** antolatu du udalak gaurko, egubakoitza. Unibertsitatean izango da, 22:30ean, eta Madrilgo Palique taldeak egongo du.
► **Ur jolasparkea** egongo da zabalik etzi, domeka, kiroldegian. 16:00etatik 18:00etara, 10 urtetik gorakoendako izango da (baita helduondako ere); 18:00etatik 20:00etara, adin horretatik beherakoendako.

► **Almeneko guraseoi** zuzendutako bilera informatiboak egongo dira martitzenean, hilak 30, ikastolan, 18:00etan. Datorren ikasturteko hezkuntza eskaintza azalduko dute.
► **Los hijos de la luna** izeneko hitzaldia egongo du Daniel Barandiaranek eguaztenean, hilak 31, kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI

► **III. Urtzelai-Txinparta bertso-sariketa** jokatuko da bihar, zapatua, Pago-Uso elkarteak, 20:30ean.
► **Oñatiko filatelia eta numismatika taldeak** hitzaldia egongo du eguaztenean, martxoak 31, kultura etxean, 19:30ean. Seiluen historia, euroa, txanponak... izango dira hizpide, besteak beste.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Makillaje ikastaroa** deitu du Gemes estetika zentroak apirilaren 5erako, astelehena, 18:00etan.

BERGARA

► **Hainbat Internet ikastaro** antolatu ditu KZGuneak: besteak beste, oinarriko Internet, banketxe elektronikoa, produktuak bilatzea, enpresendako finantzazioa... Gehienak bi ordukoak dira. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 76 73 24 telefono zenbakira.
► **Informatika ikastaroa** antolatu du Udal Enplegu Batzordeak apirilaren 19tik maiatzaren 21era bitartean. Windows eta Microsoft Word hastapen ikastaroa izango da. Izena emateko, jo Udal Ongizate eta Enplegu sailera martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitartean, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Patxi Saiz musikariak** *Galdezten*... bere lehen diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko du bihar, zapatua. Eskolan izango da emanaldia, 22:00etan. 4 euro da.



► MUSIKA

GOIKOBALUREN ETA ONCE-REN ALAIA ABESBATZAREN EMANALDIA

Arrasateko Goikobalu abesbatzak 15. urteurrena du, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu hori ospatzeko. Besteak beste, bihar, zapatua, emanaldi berezia egongo dute Goikobaluk eta ONCE erakundearen Alaia abesbatzak. Saioa San Frantzisko elizan izango da, Mondragoen, 20:00etan. Alaia abesbatza 1991n sortu zen, eta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan dago 1995a ezkerre. Euren hurrengo helburua da disko bat aurkeztea. Biharko emanaldian, Gorecky, Byrd, Rachmaninof, Andreu, Steiner, Mancini... eta beste hainbat musika idazleren lanak eskainiko dituzte Goikobaluk eta Alaia. Urteurreneko ospakizunekin jarraituz, apirilaren 3an, zapatua, Giokelaren jaialdi baten parte hartuko du Goikobaluk, Arrasaten.

Non: San Frantzisko elizan, Arrasaten. **Noiz:** martxoak 27, zapatua. **Ordua:** 20:00etan.




Bodegas GARCIA de OLANO, S.C.

ATE IREKIAK

Gonbidatzen zaitugu martxoaren 27an eta 28an egongo ditugun ate irekien jardunaldietara. Zatoz gure upeltegia eta ardoa ezagutzera!

Informazio zabalagoa: 945 60 01 78 edo 669 70 63 82.

Bodegas GARCIA de OLANO SC
San Bartolome 15, PAGANOS (Arabar Errioxa)
www.bodegasgarciaolano.com
garciaolano@terra.es



PATXI SAIZ MUSIKARIAK LEHEN DISKOA AURKEZTUKO DU ANTZUOLAN

Getariarra da Patxi Saiz musikaria, baina Antzuolarekin zerikusi handia izan du; izan ere, herri horretako musikariekin elkarlan estua egin du betidanik. Hainbat maketaren ondoren, lehen diskoa, *Galdetzen...*, grabatu du Patxi Saizek, eta Antzuolan aurkezpen kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, eskolan, 22:00etan. Xabier Agirre antzuolarrak alboka, gaita, baxua eta hainbat txirula jo ditu diskoan, eta ahotsa ere ipini du hainbat kantutan.

ARRASATE

► **Nuevo Catecismo Catolico eta Adult Oriented Punk** taldeek musika emanaldia egingo dute gaur, egubakoitzaz, gaztetxean, 22:30ean.

► XVII. Abesbatzen Topaketa

antolatu du Arizmendi Ikastolak biharko, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Arrasate, Oñati, Aramaio eta Berrizko ikastetxeetako abesbatzek parte hartuko dute, eta baita Alemaniako talde batek ere. 2 euro da sarrera.

BERGARA

► **Terroristars eta Evirus69** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitzaz, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Smoking bird, Elebators eta Paniks** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Love with Arthur Lee eta Electric Riders** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 20:30ean. Sarrerak 18 euro kostatuko dira aldeaz aurretik erosiz gero, eta 20, bertan.

► **Nomeansno eta Ya te digo** taldeen emanaldia egongo da martxoaren 31n, eguaztrena, Jam aretoan, 21:00etan.

ELGETA

► **Matxura eta Morau** musikarien emanaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI

► **Flitter eta Aterkings** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitzaz, gaztelekuan, 22:30ean. 5 euro da.

► **Mambo badago party** jaialdia egongo da bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:00etan. Atom Rhumba eta Audience taldeek joko dute. 6 euro da.

► **Felix Ibarondo konposatzaile oñatiarrari** omenaldia egingo diote etzi, domeka. Santa Ana antzokian kontzertua eskainiko du Kuraia taldeak 19:30ean, eta bideo emanaldia egongo da. Ibarondok *Obsidienne* eta *Ekein* lanak aurkeztuko ditu.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Independentzia eguna** ospatuko dute bihar, zapatua. Triki-poteoa, herri bazkaria, herri kirolak... egongo dira.

OÑATI

► **Txantxiku Ikastolaren Eguneko** egitarauaren barne, honako ekintzak izango dira: martitzenean, hilak 30, English Theatre Company taldearen emanaldiak ikasleendako, Santa Anan; apirilaren 1ean, eguena, *Glup* filmaren emanaldia, LHko ikasleendako; eta egubakoitzean, apirilak 2, jolasparkea Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan, 14:30-18:00, ikasleendako, eta jaialdia segidan: 14:30ean, ikasleendako, eta 18:00etan, gurasoendako.

Zinema

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Glup

Domeka: 12:00.

Sorgin bat etxean

Domeka: 17:00.

21 gramos

Domeka: 19:00, 22:00.

Astelehena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ NOVEDADES

Lost in translation

Egubakoitzaz: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

Casa de arena y niebla

Eguena: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

Mystic river

Egubakoitzaz: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Unibertsolariak

